

Duela 25 urte: subertsiorako unibertsitatea

Emilio Lopez Adan
Idazlea

Artikulu honetan Udako Euskal Unibertsitatearen (UEU) sorrera bere garaiko testuinguruan kokatzen da. Duela 25 urte Euskal Herrian sortu ziren berritasun politiko, kultural, artistiko eta intelektualak aztertzen dira, orduko eztabaida nagusiak gainbegiratur: tradizioa eta progresoa, nazionalismoa eta internazionalismoa, marxismoa eta erlijioa, ordena eta subertsioa....

The article situates the birth of Udako Euskal Unibertsitatea (UEU) within the context of the time it took place, and it analyses political, cultural, artistic and intellectual newesses which were given 25 years ago in the Basque Country, by supervising the principal arguments of the time: tradition and progress, nationalism and internationalisation, Marxism and religion, order and subversion...

Sarrera¹

1971n, Bruselako Unibertsitate Librean ari nintzenean, Piarres Xarritonek deitu ninduen Baionako bigarren aste kulturean parte hartzeko. Euskal Erakustokian izan zen mahaingurua; marxismoa genuen gai zentrala, marxismoa Euskal Herrian; Joxe Azurmen-di zen beste hizlaria, Joan Mari Torreal dai moderatzailea eta entzuleak laster bilakatu ziren partaide, berea esateko gogoia eta gaitasuna zituztela-ko. Ohore handia izan zitzaidan pent-salari finen eta euskaltzale bipilen artean gertatzea; nire trakeskeria lin-guistikoak adeitasunez eraman zituz-ten eta gaur egun ere hori eskertu nahi diet.

Baionako mintzaldiak izan ziren Udako Euskal Unibertsitatearen lehen urratsa eta 1973an Donibane-Lohizu-n eman zitzaion hasiera hemen biltzen gaituen instituzioari. Egun ere sobera ohore handia gertatzen zait zuen aitzinean mintzatzea. Usu izan naiz Udako Unibertsitatearen lankide, baina bada areto honetan Udako Eus-kal Unibertsitatearen bizitza segurtatu duen hainbeste buruzagi non argi zaidan ez naizela egokiena hogeita bost urte horien aipatzeko. Aurreko denboretara joko dut.

Baionan, esan dut, marxismoa zen gai nagusia. Marxismo iraultzailea, gaineratuko nuke. Gaurko hitzaldian arakatu nahi dut zergatik eta nola hel-du ginen ikusmolde erradikalen geure-ganatzera. Agian aurrekoen ikertzea gerta dakiguke 1973ko aukeren argi-garri.

Baionako mintzaldietan, Azurmen-diren desesperaziorako, pentsalari

frantsesak ziren erreferentzia kultural modernoena. Bi gizandien aipaldiak gurutzatu ziren eztabaidan: Jean-Paul Sartre eta Raymond Aron. Sartrek euskal arazoa ezagutu zuen, bai eta horretaz idatzi ere. Gaur egunean hark bultzatu biolentzia iraultzailea ez da egokitzen jotzen eta marxismo sobieta-rra defendatzeko zaletu gutxi dago. Hain zuzen, erregimen sobietarren krimenak ideologiaz estali zituelako egin zaizkio Sartre-ri kritika gogorrenak. Sar-trereren aipatzea bera ere ez da oso ongi ikusia. Alta, hutsen eta politikarien gai-netik, bera izan zen gure garaietako kontzientzia morala. Sartre-engan lotu ziren utopia komunistaren oinarri filo-sofikoak, ezagutza sozialak eta kon-promezurako deiak. Aron zuzen zebilen totalitarismoen kritika eginez, zuzen biolentziaren mistika salatuz; baina erreboltarako grina arrunt eska-sa zuen. Horregatik esaten genuen hobea zela Sartre-ekin oker ibiltzea Aronen ondoan zuzen baino. Baina Unibertsitate batean ezin daiteke oker ibiltzea ontzat jo. Askatasunaren alde-ko dei etikoa kontzientzia kritikoaz osatu behar da; espiritu librea gauza ahula da ikerkuntza-lanaz laguntzen ez bada. Gaurko hitzaldiaren gai zentrala hau izanen da: askatasunaren nahia, borrokarako grina eta errealtatea eza-gutzeko kemen intelektuala nola bilba-tu ziren aurreko belaunaldian.

Belaunaldi berria frankismoaren pean

Frankismoaren bukaeran sortu zen Udako Euskal Unibertsitatea. Irakas-kuntza normalizatuko maisu moder-noek diote frankismoa ez zela hain izu-garria. Nire ustez, trantsizio demokra-tikoari onespina emateko haustura

1. 1997ko uztailaren 14an Iruñean emandako hitzaldia, UEUko Ikastaroen irekiera-ekitaldian Larraona Ikastetxean.

iraultzailearen oinarri sozial eta etikoak mendratu nahi dituzte irakasle horiek; gehiengoaren frankismo soziologikoa edo erregimenaren faszismo deskafeinatua aipatzen dizkigute jarrera errup-turisten ustezko gehiegikeria agerian uzteko. Baina egia historikoa eta jen-dearen memoria ez dira hain goxoak. Demokraziaren eta langileriaren gaine-ko errepresioa ahaztu gabe, erregime-nak bazuen euskaldunen nortasun na-zionala desegiteko borondate fermua. Euskalduntasuna ez zen soilki admi-nistrazioan eta irakaskuntzan ukatua: zapalkuntza pean zen eta heriotza ira-gartzen zuen iluntasunean bizi ginen.

Gerla eta afusilamenduen katastro-feak joanak ziren, baina ez ahantziak: beldur eta ezin astuna pairatu geni-tuen. Elizaren baitan baziren euskal-dunen aldeko nolabaiteko argitxoak, hierarkiak eta klero gehienaren jarrera frankistak erdi itota, hedadura urrikoak, umilak, isilak. Oposizio politikoan, Ipar Ameriketako Estatu Batuek eta Vatika-noak frankismoa onartu eta gero, er-besteko Alderdi Jeltzalea diktaduraren amaitzearen zain zegoen, herabe eta erdi parlesiatua. Egon, egon egin beharko zen Diktadorea hil arte, haren kentzea ezinezkoa baitzen.

Bada, hain zuzen, egotea ez zi-tzaion aski 1960aren inguruan heldu-tasun fisiologiko eta moralera heldu zen belaunaldiari. Hartan ageri ziren berpizkunde abertzalearen protago-nistak eta Joxe Azurmendik mugimendu hori deitu du «ETA fenome-noa». Denak ez ziren ETakoak, baina erakunde honek garaian garaiko ikusmolde politiko eta kulturaletan izandako garrantziaz ez da dudarik.

Protagonizatu zuten haustura aipa-tzeko, nahitara erabili dut *heldutasun moral*a eta ez *ideologia politikoa*. Hona

zergatik: 1953an bildu ziren Deustua eta Bilboko ikasle batzuk. Bat baino gehiago lotua da Udako Euskal Uni-bertsitatearekin: Agirre, Benito del Valle, Irigoyen, Madariaga, Txillar-degi... *Ekin*, barne-buletinaren izena zuten. Ekin mugimenduan elkartu zi-renek ezin zuten jasan frankismoaren eraso iraunkor eta gupidagabekoa, ezin eraman herriaren hiltamua, ezin irentsi gehiengoaren beldurra eta epel-keria, ezin egon erbestekoen pasibota-sunarekin gelditi. Injustiziarri erantzun gabe ezin egon hori jarrera morala da eta, hain zuzen, haren lehen ondorioa ez da izan erakunde politiko berririk sortzea baizik eta garaikideen artean konpromisorako deia zabaltzea. Abia-puntu honek markatu zuen belaunaldi osoa. Definizio politiko landuak gero etorri ziren.

Etsipena baztertzeko premia zeuka-ten eta kateatzen gintuzten beldur eta uste faltsuak gainditzeari ekin zioten; nazional-katolizismo ofizialak izkuta-tzen zituen kultura eta historiaren ikasteari garrantzi handia eman zioten, eta honela hasieratik lotu zituzten bo-rroka eta ezagutza. Bereziki, euskara ikasi, landu eta erabili zuten. Geroko historian eragin handia izan duten bi aukera barnatu zituzten. Hasteko, euskararen lekua: euskaltzale sutsuak ziren; hizkuntzan finkatu zuten nazio-tasuna definitzeko oinarritzko lekua, eta kulturaren eta politikan euskaraz ihar-duteko exigentzia plazaratu zuten. Ge-ro, jeltzaleekin apurtuz, politika espai-nolean ibiltzeari ukoa: hemen bertan egindakoaren lehentasuna azpimarra-tu zuten, eta espainolekin politikan ibiltzeari alferrikako edo desbidera-tzaile zeritzoten.

Ekin-ekoek eta gero ETAk eman urratsak ez ziren kanpotik ekarritako ideologia baten ondorioak. Ideologia,

hain zuzen, jeltkideen iturrietan edan zuten eta berrikuntza gutxi zeukaten. Beraientzat, erbesteko jeltkideak ez ziren ideiaz kritikagarri: etsituak eta akituak zirelako inarrosi zituzten. Denen helburu nazionalistak ontzat jo zituzten eta inobilismoa eta etsipenaren aurka altxatu. Beraz, EAJrekin borrokan izan baziren ere, mundu jeltkidearekin lotu nahiaz luzez ibili ziren.

Gaurkoa ez baita historia politikoaz, ez dizkizuet aipatuko Ajuriagerra edo Jose Antonio Agirrerekin izandako harremanak. Aukeratu dudana gaia etika, kultura eta militantziaren arteko harremanak dira eta, nire ustez, hiruen arteko lotura nabaria izan zen ETAren hasieran. Euskal Herriaz eta euskararen egoeraz erreflexio sakon baten ondorioz, ikusmolde erreflexionatu eta boluntarista baten bidez, hizkuntzaren praktikara eta ekimen politikora heldu ziren lehen militantek.

Euskarari leku osoa, leku normala emateko borondatea Udako Euskal Unibertsitatearen oinarri-oinarrian dago. Alta, ikerkuntza eta irakaskuntza zientifikoa, gerla aurreko abertzale kultuen artean erdaraz aritzeko usadioa bazen. Beti izan da euskararen aldeko korrante minoritario bat eta aurretikoen artean ditugu Arturo Campionen edo 1936ko Ibarren *Genio y Lengua* liburua. Baina erbesteko nazionalistek argitaratu zituzten liburu gehienak erdaraz ziren, nahiz eta jeltkideen artean kokatu behar Andima Ibiñaga-beitia eta Jokin Zaitegi, 1950ean Guatemalan *Euzko-Gogoa* aldizkari literario eta filosofiko euskalduna sortu zutenak. Jarrera nagusia nabaria zen: kultura landuan, erdara nagusi. ETAkoentzat esperientzia hurbilena 1956ko Pariseko Batzarra izan zen eta han jende anitzek salatu bazituen euskararendako arrisku larriak, inork

gutxi zuten adierazi nazionalismoak ez ziola behar leku ematen hizkuntzari. Horregatik, euskararen leku zentrala deblauki baieztatzea berrikuntza bat izan zen, eta alderdi politiko batek naziotasunaren oinarria euskararen finkatzea, haustura bat.

Esan dudanez, bertan eta berehala borrokatu nahiak konpromezu pertsonal handiak eskatu zituen. Jeltkideengandik bereizteko bidean, motore nagusia ez zen ideologikoa: militantek erantzukizun pertsonala ezarri zuten aitzinetik eta ekintza politikoa beharri-zan etiko gisa planteiatu zuten. Jokae-ra honen oinarrian bildu ziren jatorri asko. Lehena, nire ustez, Euskal Herriari buruzko kontzientzia agonikoa. Hiltamuaeren pisua, hondatzen ari zen etxeko drama lazarria, Alejandro de la Sotak Irlandatik ekarritako motiboan bezala negarrez ari zen ama aberria, bilakatu ziren hautu gogorrenak egiteko motibo, gazte hoberenak behartzen dituztenak. Hona anitzek barnatu sentimendua, gaur egun ere irauten duena.

Herri-egoerari buruzko kontzientziaren ondoan, konpromezua hartzeko beharri-zana lotu zen kristianismoaren ideia militante eta progresistekin. Gure inteligentziak tradizioz onesten zituen ikusmolde horiek, eta, hain zuzen, Frantziako intelektual katoliko progresistek, Mauriac eta Maritain-ek bezala, euskal nazionalisten alde hartu zituzten jarrera matizatuak ongi ezagutzen zituzten abertzale guztiek. Frankismoak monopolizatu nahi zuten erlijiotasunari kontrajarri zitzaizkion eta erreboltari legitimitatea eman zioten.

Beraz, garaian garaiko erreferentzia ideologiko jeltkide eta girstinoez oratua, konpromezurako etika batek ziharduen. Militanteek gero antikonfor-

mismo sozialarekin lotu zuten eta hau bai, berria zen. Gogora dezagun garapen ekonomikoaren urteetan dirua erruz ari zela; frankismoak gogor estutzen zituen alor politiko eta kulturalak, baina aisiarako eta kontsumismorako ateak zabal-zabalik utzi zituen. Herria hiltzen ari zenean negoziotara edo komoditate pertsonaletara lerratzea gogor arbuiatu zuten lehengo ekintzailleek. Zain egotea ez zen soilki estrategia desegokia: inmorala zitzaien.

Berriak: nor eta nola

EAJrekin haustura eginda, ETAk bildu behar zituen abertzaleak. Egia esan, 1960ean nazionalismoak bazituen bere alor sozial propioak. Egin-kizun kultural eta deportiboetarako elkarte euskaltzaleak sortu zituzten hainbeste militante apal eta kemen-tsuk. Inork ez dezan gauza erraza zenik pentsa; txibatoek eta poliziak hurbiletik jarraitzen zuten elkarteen bizitza, eta beti prest ziren erantzuleak atxilotzeko, eginkizunak debekatzeko eta elkarreak suntsitzeko. Alta, bizi eta hedatu ziren. Aipa ditzadan abesbatzak, dantzariak, antzerki-taldeak, mendigoizaleak. Hasieran EAJ eta EGLren eremua ziren eta ez zen haietan politika zuzenik egiten; sareak antolatzen ziren eta ideari bizia eman. Militanteen kaptazioa geldia zen eta bakarrik elementu seguruenak biltzen ziren. Batez ere, estrategia jeltokidearen ondorioz, ez zen enfrentamendurik bilatzen.

Baina errealitateak inposatzen zituen enfrentamenduak. Erregimenak ez zuen batere interesik euskal kultura aurrera ateratzeko eta nazionalismo espainol ezjakin eta harroa zen administrazioaren erreferentzia bakarra. Euskaldunen edozein ekintza kultural

administrazioaren aurka bere kasa ibiltzeko behartua zen. Estatu espainolaren jarrera ezkor sistematikoak bultzatu zuen sare nazionalista tradizionalen politizatzea. Ekintzarako beharrak erraztu zuen ETAren jarrera ulertzea, batez ere alor kulturaletan.

Tesi kritikoek, honela, arrakasta handia bildu zuten mugimendu kultural berrietan. Zehatzago arakatuko ditut gero ikastolak, alfabetatze eta euskalduntzea, kantariak, idazleak, artistak. Hemen politika laster kokatu zen leku zentrallean, eta nazionalismo jeltokidearen desmitifikatzea izan zen pentsakerak kritikoaren ardatz intelektuala. Honela, haustura ideologikoa kritika kulturalaz ondu zen. Desmitifikatze horrek, hain zuzen, estatuaren aurkako borrokari gaineratu zion ideologia jeltokidearen desmontatze osoa. Ikusmolde subertsiboa zen nazionalismoak frankismoarekin partekatzen zituen balore kontserbatzaileen aurka, eta laster subertsiboa baita nazionalismoaren oinarri kristau-demokratak salatzen. Abertzaletasunaren oinarri herrikoen bila, marxismo unibertsalarekin topo egin zen. Ibilbide honetan ETAk kulturaren uretan bildu zituen entzuleak, militanteak baita kritiko gogorrenak ere.

Eta, finean, nondik zetozen ETAko militanteak? Deustuko ikasleak aipatu ditut, klase hiritar ertainen umeak. Haien ondoan ditugu baserritarrak, krisi gorrian zegoen beren mundutik jalgiak, baita langile gazteak ere, gerla aurreko sindikalismo tradizionalen lekurik aurkitu ez zutenak. Hirietako eta baserriko munduak elkartu ziren mugimendu zabal eta anitza sortzeko. Ikusmolde intelektual nagusiak, horretan ari gara, nork eman zituen? Ez, hori ez zen apaiztegietan gertatu; hirietako profesionalak eta intelektualak

izan ziren horien egileak. Anitz idatzi da horretaz, are sobera ere. *Ekin*-en ikusi ditugu intelektual hiritarren izenak. ETak berak usu aipatu zuen intelektuaren erroa. Orain modan da jatorri baserritarra azpimarratzea. Denborak aldatu dira. Lehenengo belaunaldi-tako etarrek beren publikazioetan agertarazi nahi zuten intelektuaren erreflexio kritikoa: adibidez, *Intelektualei gutun*-en segida bilakabide ideologikoaren hari gisa aipatzen zen. Oraingo intelektual postmodernoak, berriz, nazionalismoaren alderdi biszeral eta irrazionalerak laketzen dira. Ez dut uste moda berria heldutasun intelektuaren ondorioa denik, eta tamalgarria zait ezker abertzalearen baitan ikusmolde tremendista bera noizbait ikustea.

Egia da urte haietan gazte asko joan zela baserritik kalera. Kalean enplegu anitz sortu zen eta, lan gutxiago eginez, diru gehiago irabazten ahal zen lantegian. Baserritarren bizimodua krisian sartu zen. Pobreekin, ezin jarraitu, nekazaritza utzi zuten; askotan, alorrak pinuz landatu ziren, eta gazteek aldizkatzen zituzten kaleko lana eta mendiko behar erresidualak. Aberatsenek edo ausartenek, berriz, maileguak hartuta jo zuten aitzina, merkatuko ekonomia monetarioan sartzeko; baserriak berriztatu zituzten eta bizimodua arrunt aldatu zitzaienten, komoditate modernoak bereganaturik. Hitz batez, baserritarren krisia ez zen lotu herritik emigratzearekin edo belaunaldi gazteen miseria-rekin. Zibilizazio tradizionala kolpatua izan zen, baina baserritik joandakoak ondoko hirira mugitu ziren hobeki bizitzeko eta etxean gelditu zirenek hobekuntza ederrak ukan zituzten. Krisia, bai, baina ez hondamendia. Aldakuntza, nabaria, baina ez sustraigabetzaila. Nekez sinets daiteke baserritar ezjakin eta basatien belaunaldi oso

batek borroka armatua hautatu zuela desesperazioz. Belaunaldiaren deskripzio tremendista faltsua da. Borroka-moldeen aukera gogoeta kritiko ongi dokumentatuaren ondorioa dela bada-kigu; militantzia politikoan sartu klase herrikoiek bitartekoak eta arartekoak izan zituzten, batez ere elkarte kultural eta erlijiosoetan, non kontzientzia kritikoaren pisua nabari-nabaria baitzen. ETaren Bosgarren Biltzar Nagusiaren hitzetan, eta beraiek bazekiten zertan ari zen militanteen kaptazioaz, baserritar jatorrikoek behar izan zuten intelektuaren lana, kontzientzi emalea.

Beraz, estrategia jeltzalearekin hautsita, ETak errebolta armatua onetsi zuen. Ez zuen diskusiorik gabe egin, eta zer eta zergatik sakonki bilatu zuten, bai ezagutza aldetik, bai eta etikaren aldetik ere. Laster lotu ziren aktualitatezko eztabaidei. Irlanda eta Israelen ereduak arakatu zituzten; gero Aljeria eta Kuba; handik laster, Txina eta Vietnam. 1961ean borroka-molde pazifista eta ghandianoen etsamina egin zuten, bai eta baztertu ere. Barne-polemika horietan ageri zen ETaren makur iraunkor bat. Borroka armatuaren bidea errealismoarengatik hautatu bazuten ere, dimentsio existentziala eman zioten. Hau da, analisi estrategiko elaboratuen ondorioz erabaki zuten diktadura ohiltzeko eta askatasun nazionala lortzeko etsaia bortxaz menderatu behar zela; denbora berean, Frantz Fanon eta Sartre bezalako idazleen eraginez, onartu zuten borroka armatuak ematen diola bere duintasuna umiliatua eta alienatua dagoen kolonizatuari. Hots, biolentzia ez da soilki estrategia: bide katartikoa da. Duintasuna eta biolentzia lotzen zituen diskurtsoak konnotazio etiko nabariak zituen, baina ateak ireki zizkien menderuari eta irrazionaltasunari. Diktadura baten aurka eta nortasun nazionala

heriotza-arrisku bizian zenean, lotura ez zen zentzurik gabekoa; aitzitik printzipio intenporal bilakaturik, beste zerbaít da.

Instituzioen aurka eta klandestinitatearen kultura

Diskurtso konprometitu eta bortitz horrek bildu zuen arrakasta ulertzeko, Estatu eta administrazioen eginkizunera itzuli behar dugu. Estatuak bere domeinua inposatzen du beti. Kontsentsua eta ideologiaren bidez ahal duenean; errepresioaren bidez bestetan. Frankismoaren denboran, zapalkuntzak ez zuen interesatuen inongo akordiorik. Sozietatearen parte batek frankismoa onartu bazuen ere, erregimenak ez zeukan inongo tresna ideologikorik euskalduntasunaren kontzientzia edo langile-klase kontzientzia zutenen fidelitatea lortzeko. Libertate demokratikoak, nortasun nazionala eta espezifitate soziala ukatuak ziren. Gerla zibila galdu zuten separatista eta gorriei garaileen legea aplikatzen zitzairen eta kito. Separatismoa krimen bat zen, eta grebak Estatuaren aurkako delituak. Mandil eta Terroristen aurkako Legea berriz indarrean eman zuten 1968an. Auzitegi Militarretan akusatuen garantiak ukatuak ziren. Ordena Publikoaren Tribunalak famatua egin zen, eta ez onerako... 1962 eta 1969 artean Estatuak sei aldiz dekretatu zuen Eszepzio Egoera Hego Euskal Herrian eta 41 hilabete pasatu genuen libertate edo garantia zibiko mikorik gabe.

Lekuan lekuko autoritateek ere joko bera zuten. Alkate, zinegotzi, kultur ordezkari edo burokrate, administrazioan botere den mendreko guztiek, politika susmatzen zuten eskakizun kulturalen atzean, politika ikusten zuten

jende-ekimen guztietan, eta salatari lana egiten zuten.

Honek guzti honek ondorio garbiak zituen. Hasteko, estrategian: erregimenak aldakuntza baketsuari lekuri ez ziola uzten garbia zen eta argudio hau ETak behin eta berriz errepikatu zuen. Gero instituzioen aurka trinkotu ziren kulturaren eta politika subertsiboaren arteko harremanak. Kultura berria, kultura euskalduna, kultura modernoa, hots, nazional-katolizismo espainoletik kanpoan gertatzen zen kultura guztia, borroka politikoarekin identifikatu zen derrigorrez. Jende konprometituak bazekien instituzioak etsaiaren esparrua zirela, askatasuna eta sorkuntzarako lur antzua. Euskara, kultura eta aurrerakoitasun politikosoziala instituzioetatik aparteko erakunde herrikoietan biltzeko asmoa sustraitu zen urte haietan.

Gero, klandestinitatean eta militantzian, sozialista bilakatu zen belaunaldi abertzale berria. Urrundik ikusita gauza argia badirudi ere, garaian garaiko protagonistentzat ez zen batere ebidentea. Salbuespenak salbuespen, sozietate eta kultura ikusteko molde ezkertiarak ez ziren gerla aurreko nazionalismoaren osakina. Karlos Santamariak seinatu zuenez, eremu nazionala eta soziala aski irredutibleak dira, bata ezin bestea bere gain hartu edo esplikat. Urte haietako biak batzeko gogoak arakatzeko, protagonisten eboluzio ideologikoa argitu behar dugu oposizioak sortutako konportamentu zibikoen analisiaren bidez. Erregimenaren kontrako guztiak klandestinitate eta oposizioaren eremuan ziren eta han aurkitu eta elkar ezagutu zuten. Euskara ikasi nahi zutenak, sindikatuen arduradunak edo alderdi debekatuen militanteak, denak ziren behartuak izkutuan eta lurpean ibiltze-

ra. Denek multikopista zahar astun eta zaratatsuetan lanean, denek areto hots eta gaizki argitueta mila prekauzioz bilduta. Ikurrina baten agertzeak logistika eta ausardia eskatzen zituen eta paper baten inprimatzeko kasik talde klandestinoen logistika behar zen. Praktika sozial berdinetan ibilitakoen artean sareak eta laguntzak sortu ziren. Honek, akaso, erraztu egin zuen abertzale berriek mugimendu langilea aurkitzea eta sindikalistek eta iraultzaile sozialek abertzaletasun berriaz zerbait ulertzea.

Erregimenaren aurkako praktiketan ere garatu zen kultura herrikoia. Oposizioan ibili behar horrek garrantzi oso handia ukan zuen estatutik aparteko bizi soziala sortzeko. Komunikabideak, adibidez, erregimenak monopolizatzen zituen. Erreferaz, egiten ari zenaren berri emateko komunikazio-sare bereziak hedatu ziren: gurean tradizionalak diren koadrilak, peñak, sozietateak, txokoak, merkatuak, erromeriak... denak erabili zituen oposizioak. Gainera, oso era naturalaz. Hala nola langile-auzoetan kultura berezia bazen, Euskal Herri osoan baziren jendea elkartzeko eta ahozko komunikazioa errazteko bide tradizionalak.

Gatazka horietan erregimena galtzaile zen. Kontsentsu eta akordio ideologikorik gabe errepresioa zeukan arma bakarra, eta errepresioa ez zen gauza erreboltarako deiak isiltzeko menderatzen ez zituen espazioetan.

Alta, frankismoaren azken urteetako kontestu orokorra ez da oinarria baino; egitekoak, jende konkretuek egin zituzten. Nork eta zer, orain aipatuko ditut.

Sozietatean ikus eta ikas

Klandestinitatean aurkitutako egoerak mugitu zuen pentsakera. Praktika berrietan, ETAk aurkitu zituen langile-mugimendua, elizaren atal konprometitua, eta kultura berria eta progresistaren protagonistak. Esan dudanez, ETako jendeak ideia berriak kontsideratzeko gogoia eta irekidura izan bazituen. Lehen biltzar nagusiak 1962an eta 1963an egin ziren. Usu izan dira komentatuak. Emandako urratsen artean, kultura eta politika nahasten dituenak kontsideratuko ditut.

Hasteko, nazionalismoaren leku zentrala. Iraunkorra izan da ETaren historian eta horrela jarraitzen du. Nazio-arazoaz pentsatzeko ikuspegi modernoaren eragina laster nabaritu zen; militanteek ez zuten jelkideen ikusmoldeekin aski eta jakinahia asetzeko irakur, irakurri zuten. Urte haietako testuen artean gogora ditzadan deigarrienak. Hasteko, kanpotarrenak: Joan Fuster (*Nosaltres els Valencians*), Pierre Vilar (*La Catalogne dans l'Espagne Moderne*), Guy Heraud (*L'Europe des ethnies*). Gero, gutartean, bi liburu monstro aipatu behar. Biek eragin handia izan zuten, bakoitzak bere modura.

Lehena, *Vasconia. Estudio dialéctico de una nacionalidad*. Buenos Airesen publikatu zuen Fernando Sarrailh de Ihartzak, hau da, Federiko Krutwigek. Hausturarako gogoia eman zigun, bai eta borroka armatua bideratzeko argudioak. Jelkide erdalzale, baketsu eta kristau-demokratek bereak eta bost bildu zituzten: zilbor-hestea pikatzeko, bikaina heldu zitzaigun. Alta, egonezin zerbait ere aipatu behar. Liburuan, nire iduriko, bazebilen herri indartsuen apologia, eta kristianismoa eta demokrazia salatuzeko

jarrera berezia: doktrina berdintzaileak esklabo eta ahulen doktrinak dira, omen, naturak sortutako jaunen aurka-koak. Uste dut indarraren apologia eskuindar honen iturri bat Jon Mirande dela. Krutwigek Parisen ezagutu zuen, eta Mirandek berak idatzia du *Vasconia*-ren gauza asko bereak direla. Zuberotarraren iturriak, horiek bai, eskuin muturrekoak dira. Krutwig, bere aldetik, ETAn sartu zen eta ezkerreko bidea aukeratu zuen. Zeukan adinarekin ere, barnealdera etorri zitzaigun Biltzar Nagusira. Baina liburuan dena dago, eta ETaren baitan nabaria den militarismorako joeraren aurretiko gisa kontsideratzen ahal da.

Beste pertsonaia: Jorge Oteiza eta bere liburua *Quousque tandem*, 1963an argitaratua. Aitortu behar Oteiza zaharraren azken espantuek xifritzen nautela, baina objektibotasuna galdu gaberik mintzatzera entseatuko naiz. Oteizaren eragina ere handia izan zen. Ez hainbeste idatzi zuenak, baizik eta bere ezagutza pertsonalak egina. Aztarnak alor kultural gehiengatik ikusi ziren gero. ETaren baitan ere, militante (eta ez txikiengatik) laguna baitzen. Astindura handiena bere ikuspegi estetikoak sortu zuen. Kultura jelkide hertsiazen uzkaile osoa ekarri zuen eta hemeretzigarren mendeko ideologia nazionalista, estu eta geldia, foruen garai mitifikatuari lotua, hautsi. Oteizak, euskal nortasuna antzinatean bilatuz eta estetika kontenporaneoa aurre-historian finkatuz, modernitatearen eta etorkizunaren ateak zabaltu zituen euskalduntasunari. Paradoxa badirudi ere, antzina eta etorkizuna uztartzeko prozedura bera aurkituko dugu euskararen modernotasunaz mintzatzekoan. Estetika horrek garrantzi handia ematen zien irrazionalari eta intuizioari, eta badirudi putzu honetan usu ibili behar dugula. Oteizak

ez daki euskaraz eta inork baino hobeki ulertu omen du zer den euskalduntasuna, zer den indoeuoparren aurreko arrazaren arima: intuizioa nagusi ezagutza enpirikoaren kaltetan.

Laburtuz, Krutwigek eta Oteizak erraztu zuten nazionalismo jelkidearekin haustura, eta politikan eta kulturaren horizonte zabalak ireki zituzten. Akatsak landatu zituzten eta, genioek bezala, handitasunez landatu ere. Urte haietako kronikan duten lekua inork ez die ukatuko.

Arradatzen ari zen tupina sozial hartan, erlijiotasuna kontsideratzeko modua ere aldatu zen. Elizaren gertakari handi batek astindu zituen bazterrak: Vatikanoko II Kontzilioa eta *Pacem in Terris* entziklika, 1963koa. Jende anitzek aurkitu zituzten bi gai nagusi: bata, nazio edo kultura bakoitzak bere nortasuna garatzeko duen eskubidearen defentsa; bigarrena, elizak pobreen alde borrokatzeko daukan behar morala. Euskal Herriko apaiz konprometituen artean izandako eboluzioak argi erakusten du nola Vatikanoren mezu soziala sustraitu baitzen nazionalismo soilaren alorrean; Derioko apaizgaitegian 1968ko okupatzaileen salaketak konparatzen badira 1960ko abadeek egindakoekin, ibilitako bidea antzematen da. Deriokoek Aita Sainduari idatzi zioten Eliza pobre, libre, dinamiko eta bertakoa nahi zutela eta hierarkia salatu zuten kapitalaren eta gobernuaren alde zegoelako. Dudarik gabe, abertzaleak ziren eta garbi azpimarratu zuten hierarkia hori arrunt erdararen aldekoa zela, baina pribilegioei saldutako Eliza arbuatu zuten bereziki. Esan gabe doa zer garrantzia izan zuen ikusmolde honek abertzale katolikoengan. Erlijio aldetik ezer ez zen altxatzen belaunaldi berrien kementa gelditzeko, konpromezu politi-

korako grina guztiz haizu baitzen. Hemen, berriz ere, moralala mintzo.

Konpromezu politiko-sozialaren esparru nagusia, oraindik, langileen borrokak ziren eta, esan bezala, laster ikastegi handi bilakatu ziren abertzale berrientzat. 1962an greba handiak izan ziren, eta Salbuespen Egoera egotzi zuten maiatzean. Greba orokor hori izan zen erbestetik zuzenki manatu ez zen lehena eta Comisiones Obreras-en abiapuntua. Comisiones-en sortzaileen artean, JOC eta HOACen girstinoak, PCkoak eta ELA. Haustura argia izan zen kanpoko UGT eta Euzko Jaurilaritzaren ondoko Aliantza Sindikalarekin. Abertzaleen parte-hartze sindikala ELAK zeraman; haren eboluzioan ikus daiteke nazionalismo berria astindu zuen berrikuntza intelektual eta militantea. Gogora dezadan ETA oraindik bere kristau-doktrina sozialaren baltsan zenean ELA-STVk *Printzipioak* argitaratu zituela 1963an, nazionalismoaz, sozialismoaz eta internazionalismoaz hizkuntza arrunt marxista erabiliz. Hura izan zen berrikuntzaren zeinua, baina eszasioak laster gertatu ziren ELAn, berrikuntza nahasketa eta gatazkarik gabe ezinezkoa balitz bezala.

Berritze teorikoa, azken finean, marxismoaren erreinua zen. Marxismo ezkertiarra plantatu zitzaigun horizontean, humanitate progresistaren zeruertzt obligatua. Hogeigarren mendeko jende zintzoak marxismoarekin egin behar zuen topo. Guk ere bai, baina, esan dudanez, gure jatorria eskuineko nazionalismoa zen eta etxeko marxismoa ez zen batere abertzale, salbuespen anekdotikoak salbu. Eztabaidarik gabe ez genuen geureganatu eta kulturari zihardutenek oso parte handia ukan zuten argitze- eta nahaste-lanetan.

Hausturarako kultura militante eta irekia

Artea eta kultura konpromezu politiko bezala kontsideratzea izan zen egoera berriaren ondorioa. Oso azpimarratzekoa da eginkizun kulturalen eta herri-mugimenduen artean zegoen lotura. Kapitulu berezia merezi luke kantagintzak, jendea biltzeko eta kontzientzia pizteko leku aparta izan baitzuen: Michel Labéguerieren *Gu gira Euskadiko gaztedi berria* kasik himno nazional bilakatu zitzaion gaztediari. Kantagintza berriak, bere moduz, Oteizaren bidea hartu zuen: zaharretan finka, berri-berria ekoiztu eta jelkideen adierazmoldeak gainditu. Honela interpretatzen ahal da Mikel Laboa: 1964an lehen diskoa atera zuen, kanta zaharren bilduma. Abesbatzetan kantatzen zen erreperitorio landutik haratago joan zen, kantu herrikoi ahaztuen bila, eta gaztediak *O Pello, Pello* eta besteak kantatzen zituen etorkizunari begira. Gero Laboak Aresti eman zigun eta laster Bertolt Brecht.

1965ean sortu zen *Ez dok amairu* eta 1972a arte, urte hartan desegin baitzen, giro bereziaren protagonista izan zen. Kantagintza konprometituak eremu zabalak ukitu zituen, bai eta jendearen kontzientzia eta errebeldia areagotu ere; Xabier Letek gero idatzi zuenez, «Kanta berria, erresistentzi abestia (zen)».

Kantarien izenak mila aldiz errepikatu dira: Laboa, Lertxundi, Lete...; inguruan ibilitako intelektualak eta poetak gutxiago: Oteiza, Jose Angel Irigarai, Joxean Artze... Eztabaida guztien erdian gertatu ziren. EAJk «gustu txarreko iskanbilan» sortzailatzat salatu zituen; ETArekin hausturaren ondoko «felipeek» «txobinismo nazionalista

burgese-txikiaren» ordezkarietat zituzten. Kantariak oso barnatua zeukaten beren errola, esan nahi baita inkontziente kolektiboaren indarrak piztea eta egoeraren analisi konprometituarekin lotzea. Garbi ziotenez, kanta polit-goxoen denbora joana zen, eta abestiak salaketa eta konpromezurako deia ekarri behar zituen.

Emankizun kolektiboetan estetika, edukia eta efikazia biltzen zituzten. Baina emankizun bakoitza elgarretartze politiko bilakatzea karga astuna zen, ez soilki errepresioarengatik baizik eta eztabaida sozial guztien zurrunbiloaren erdian gertatzen zirelako. Salvador Garmendiaren antzerkia, *Historia triste bat*, Donostiako zentsura eklesiastikoak 3-R edo "oso arriskutsu" bezala katalogatu zuen elizatarietan! Kanpoko presioek eta barneko tinkadurek esplikatu dezakete mugimendua- ren ahitzea, baina honen zulatzea ez da nire gaia. Kantari bakoitzak bere bideari eman zion gero, askok konpromezua utzi gabe. Ikusgarria, dudarik gabe, taldeak jendearekin lortu zuen komunioa. Ez jende guztiarekin, ez, bai ordea nazionalismo berriaren inguruan mugitzen zen talde zabal eta indartsuarekin.

Taldeak erreferentzia kultural unibertsal, moderno eta konprometituak zituen. Bataz beste, Brassens, Brel, Joan Baez, Yupanqui, Paco Ibáñez, Raimon, Llach, Serrat... Honekin esan nahi dudana zera da: ikertzen ari garen hamarkadan nazionalismo berriaren inguruko protagonista anitzek kanpoan gertatzen ari zenaren ezagutza sakona zutela. Erreferentzia kultural, politiko eta artistikoak oso garai-koak eta oso aztertuak izan ziren kasik beti. Okasionea izan dut esateko nazionalismo honen eduki ideologikoa hiriko intelektualen kontzientzia kriti-

koan bilatu behar dela eta ez batere sozietate atzeratu baten erreazio irrazionaletan.

Kultura modernoan jarraitzeko, Artearen euskal eskolarekin arituko naitzaizue. 1965ean plazaratu ziren lau artista-talde, bat bedera Hegoaldeko probintzietan: *Orain* Araban, *Gaur* Gipuzkoan, *Emen* Bizkaian eta *Danok* Nafarroan. Izenak argiak dira: artea errealtate sozialarekin eta oraingo eta hemengo borrokekin lotzeko; hor ziren Txillida, Mendiburu, Ortiz de Elguea, Mier, Ibarrola... Gero zakurra eta katua bezala ibiliko direnak ere elkartuak ziren. Eta programa irakurri behar: «Gure herriaren momentu historikoa agertarazteko edozein supuesto estetiko obratuko dugu (...) Artea eta kultura denentzat izan behar, oraingoak izan behar, justiziaz banatuak». Abangoardia, konpromezu soziala, korrante modernoaren ezagutza... Berriz ere ezaguna zaigun mintzamoldea.

Giro-aldaketarekin, idazle eta pentsalari berrien plazaratzea azpimarratu behar dugu. Eta berriz ere elementu kontrajarrien garrantzia antzemanen dugu.

Olerkian, demagun, bi joera nagusi. Bata, poesia soziala, ikuspegi progresista pentsamendu marxistarekin lotu nahi zuena. Blas de Otero, Celaya, eta gero Aresti. Arte plastikoetan Ibarrola zeukaten antzekoa. Abertzale gazte anitzek ezagutu eta preziatu genuen arteari klase-erakunde eta funtzio iraultzailea eman nahi izatea. Euskaldunen artean Gabriel Aresti dugu ezagunena; *Harri eta Herri* 1964koa da. Gero etorri ziren hatxez beteriko titulu guztiak, 1970a arte. Haren testuak irakurriak, kantatuak, komentatuak izan ziren. Bigarren joera, herri-agoniaren sentimendu sakonari lotua. Horretaz da-

goeneko zerbait esan dut; gogora ditzadan orain Bitoriano Gandiaga, Salvatore Mitxelena eta Joxe Azurmendi bera. Abertzaleen artean bi sorburu hauek izan dira elkartuak eta konfliktiboak. Jazarri, altxatzen gara, baina zer eduki du gure errebolta? Historiaren zentzuan iraultzarekin aitzina ari gara, ala herri kondenatu bat biziarazi nahi dugu logika historiko guztien kontra? Lotura egiten entseatu da eta ez dakit lortu den, baina sentimendu bien presentziaz jabetu gabe erreakzio anitz ez dira ulerkorrak.

Leku berezia merezi izan du olerkiak, kantuarekin batera sentimenduen eramailea delako. Alor horietan bezala, nazionalismo berriak hartu zuen lehentasuna prosan, ikerkuntza literarioan, erreforma linguistikoan. Laster eta ozenki. Hamarkada honetan kasik doinu berean mintzo dira protagonista gehienak. Gerla aurreko literatura gorotz-usainekoarekin hausten da; eremua ez zen baserria, are gutxiago baserri idealizatua. Adio Txomin Agirrerri, adio ere oso hurbil zegoen Orixeri. Haien Euskal Herriaz Joxe Azurmendik zioen, «ez dut halakorik ezagutu». Hiri-literatura aho eta luma gehienetan. Nobelaren forma modernoak esperimintatzeko gogoia eta, ondorioz, gauza anitz egun irakurgaitzak. Soziologikoki, laikoen eskuetara pasa zen literatura, konpromezu sozialarekin lotu eta, laster, marxismoaren pisua nabaritu zitzaion.

Idazle gazte berriek *Jakin* eta *Zeruko Argia* baliatu zituzten. Txillardegik, 1964an *Leturia-ren egunkari izkutua* publikatu eta, gero eta presentzia nabariago ukan zuen belaunaldi honetan. 1964ko *Zeruko Argia* izen ezagunez bete datorkigu: Lete, Saizarbitoria, Kintana... Rikardo Arregi eta Mikel Lasaren adinak ziren. "Gazte naiz" orrialdea

agertarazten zuten, ideia berrien kokalekua.

Hizkuntza ere eguneratu behar zuten. Eta gazte erradikalek egin zuten lan hori, Txillardegi gazteen artean sartzea zilegi bazait. Euskaltzaindia loerian zegoen, Koldo Mitxelena Salamancan, erdi erbestean. Horrelako autoritaterik gabe egin zen Baionako Biltzarra euskararen batasunaz, 1964an. Irizpide linguistikoen ondoan, Biltzarrak formula erradikal batez laburtu zituen xedeak: «euskaltzale-tasun aurrelaria, erradikala, burrukalaria eta sozialismozalea». Oraingo gure euskara literarioa, bere H eta guzti, handik dator. Udako Euskal Unibertsitatearen Uztaritzeko manifestua, «Unibertsitate nazionala, herritarra eta euskalduna», argi beraz irakur daitekeela uste dut. Konpromezurako dei politikoa, literaturan eta hizkuntzaren erreforman gertatzen ari zena- rekin uztartu zen.

Molde linguistikoetan gertatu zen artean eta kantagintzan bezala. Belaunaldi berriak baztertu zuen eredu jeltzalea eta etorkizunaren bila finkatu zen Sabino Arana baino zaharragoko sustraietan. Sabindarrak euskalkien alde ziren, baina jatortasuna elkartu zuten garbizaletasunarekin; horregatik baztertu zituzten idazle klasikoak, latinak kutsatuak. Idazle berriek irakurri eta bereganatu zituzten klasikoak biharko Euskal Herriak behar duen hizkuntza batua eraiki nahian.

Abertzaleen artean zegoen mugimendu kulturalak hizkuntzaren grina zuela bistan da; ardura hori ez zen soilki artistikoa edo linguistikoa: euskaldunak gure lurretan minoria izanik eta gure hizkuntzaz eskolarik gabekoak, euskararen etorkizuna euskalduntze eta alfabetatzearen bidez

segurtatu behar zen. Instituzioek utzita, instituzioen aurka, guk geuk sortu behar genituen horretarako tresnak. Euskaldunak alfabetatzeko eta erdal-dunak euskalduntzeko lanetan aurkituko dugu berriz ere Rikardo Arregi. 1966an egin zioten Euskaltzaindiari proposamena alfabetizazio-kanpaina egiteko. Gauza kuriooa, "Jarrai" izena zuen proposamen honen talde egileak: Arregirekin batera, Juan San Martin, Iñaki Beobide eta Mikel Lasa.

Subertsioa ezin gatazka zibilik gabe

Alta, abertzaleen komunitatea ez zen erabatekoa. Gaur dugun enfrontamentu zibila bezain larria ez bazen ere, baziren gutarteko gatazkak eta iraganaren idealizatzear tronpatuko ginatke. Kultur arlo guztietan bezala, idazleen artean iritzi politiko desberdinak baziren. Kreazio-lanetan jeltxideak minorian ziren, baina harreman laboralak sortu zituzten alor berrietan ez. Horregatik laster iritzi politikoak gertatu ziren gatazka-gai.

Ikastolez ari naiz, bereziki. 1964an hamabi ziren Bizkaian eta lau Gipuzkoan; urte honetan hasi ziren hedatzen, hasieran geldia, 1970etik aurrera guztiz arin. Ikastola askoren sortzean EAJk eragina izan zuen; irakasleen artean asko ETAzale zen eta beraien artean nahikoak egin zuen gero Felipeen aukera. Gainera, Elizaren pisua nabaria zen: hark zeuzkan ahal handienak lokalak eta baimenak lortzeko eta, trukez, irakaskuntza giristinoa segurtatu nahi zuen. Aldakuntzekin identifikatzen ziren irakasleek, gurasoek eta laguntzaileek «ikastola euskalduna, herritarra eta askatzailea» nahi zuten; berriz ere itzultzen zaizkigu termino berak, belaunaldi osoaren

marka. Euskara batua eta ditxosozko H borroka-gai baziren ere, erlijioaren irakaskuntzaz izan ziren lehen aharrak zaratatsuenak. Sozialismoa eta komunismoa zirela gero, gauzak gehiago nahasi.

Kontuan hartu behar ikastolek ez zutela inongo laguntza ofizialik. Ondorioz, gurasoek ordaintzen zuten. Hau ez zen harrigarria, Hego Euskal Herrian ohitura baitzen irakaskuntza pribatua ordaintzeko, baina klase-erakundeak ematen zion ikastolari, errazago baitzitzaien burges eta burges txikiei langile xumeei baino. Ikastola burgesaren aurkako borroka, publikotasunaren aldekoa, ageri zen. Pasadizoa, baina giroa kokatzeko egokia. Gabriel Arestik esana: alabak ez zituela ikastolan eman «karuegiak izan direlako».

1968an Gobernadore Zibilek eman zuten manua ikastolak legeztatzen ala ixteko. Elizak babesgoa eskaini zuen, bai eta baldintzak ipini ere: politikarik ez, dotrina bai. Federazioak onartu zuen, guraso gehienek akordioaz, eta aurka ukan zuen irakasleen elkarteak. Arazoa politikoa eta pedagogikoa zen, irakaskuntza-molde berriak baitziren irakasle ezkertiarrek preziatzen zituztenak. 1964an hasitako gatazkak iraun zuen gero eta jarraitu du, kasik gaur egun arte. Jarrera subertsiboak gaizki moldatzen dira erakunde ofizialen babespean.

Marxismoa bai, baina...

Bizi sozialean eta esparru kulturetan aukera iraultzailea egin zutenek mila borroka eraman zituzten: Estatuen aurka; aurreko idazleak ukatu; Elizarekin gatazka; guraso eta laguntzaile zuhur eta burgesei gatazka... Argia da belaunaldi hori, Rikardo Arre-

giren hitzetan, errebeldea zela. Eta hain zuzen, errebeldiaren arrazoi eta esanahiaren bila, gure intelektualak ez ziren Euskal Herriko zapalkuntza nazionaletik zetozen arrazoi zuzenekin konformatu. Munduan gaindi zebilen haize iraultzailearekin argitu eta freskatu nahi zituzten burmuinak. Honela, idazleek asko komentatu zuten 1964ko Herbert Marcusen liburua, *One-Dimensional Man*. Edukia aski ongi eransten zitzaion hemengo egoerari. Marcusek zioen kontsumo-zibilizazioak irentsi eta digeritu zituela oposizio-forma gehienak; aire berean, Euskal Herrira garapenak ekarri zizkigun kontsumorako errazkeria eta konpromezuari ukoa gure lehen militanteen pentsagaia izan zen. Gehiago: iraultzarako esperantza zibilizazio alienagarri honek marginatzen dituenengan dagoela zioen Marcusek. Gurean, euskalduntasunak zekarren marginazio politiko absolutuak haustura orokorra probokatzeko gaitasuna ematen zigula sinesten ahal zen, eta ikuspegi honek ez zuen marxismo klasikorik behar. Iraultza eginen genuke instituzioen eta mistifikazioen aurka, soilki Euskaditik abiatuz.

Marxismo klasikoa doktrina politiko optimista eta modernoa da, non iraultza egiteko gaitasuna klase-egoerak eta garapenaren beharrek bermatzen baitzuten. Nago Euskadirako aplikatua izan zen "kontradikzio nagusiaren" teoria bi ikuspegi kontradiktorioen ezkontza dela. Esan izan da kontradikzio nazionala nagusia dela, eta bere baitan biltzen dituela beste gainerakoak; errepikatua gero zapalkuntza nazionalaren aurkako jazartze armatuak ematen duela hausturarako gaitasun posible bakarra. Ikuspegi honek hizkuntza marxista darabil baina parte ederrena egiten dio ukazio orokorraren biktima sentitzen den sentimendu

nazionalari. Hemen berriz ere agertzen da lehen ikusitako arazoa: arrazionalizatzearen eta sentimenduaren arteko oreka hauskorra. Arrazionalak enpirismoa eta egoera konkretuaren ezagutza eskatzen ditu. Urte haietan sobera ikerlan gutxi zegoen euskal sozietateaz eta, horiek horrela, egiten dut ideologiak leku sobera hartu zuela gure formakuntzan eta, erreferaz, politikan; oinarri soziala behar bezala ezagutze-ko gaien eskasian, urruneko erreferentziek ez zeukaten kontrapunturik.

ETAn, belaunaldi errupturista osoan bezala, marxismoa sartzen ari zen ziztu bizian. Denek ez zuten berdin bereganatu. Abertzaletasunarekin bateragarria zela gehienek onartu, bai. Abertzaletasunaren ondorioa zela eta abertzaletasunak menderatua izanen zela pentsatu zuten alde batekoek; abertzaletasunari zinezko eduki proletarioa emanen ziola, besteek. Segur asko protagonista bakoitzak bere ikuspegia zeukan. Barnatze diferentea izan zen jendez jende, beharbada multzoz multzo eta garaiz garai. Batzuentzat, beste sinbolo bat nazionalismoa azkartzeko, antifrankismo progresista eta iraultzailearen "labela" ematen baitzion abertzaletasunari. Guztiz kontingentea, beraz, bihar uzteko independentziaren aldeko balioa galtzen bazuen. Kasu horietan, eta ez dira gutxi, marxismoa ez zen hartua izan bere eduki iraultzaile-klasistarekin. Alta, nire ustez, askorentzat esanahi guztiz jatorrarekin barnatua izan zen: EAJrekin haustura ez zen soilki geldien eta aktibisten artean, Espainiako politikan murgilduta zirenen eta interbenzionismo hori errefusatzen zutenen artean, baizik eta nazionalismo burgesaren eduki ideologiko nagusien aurkako borroka ideologiko-kulturala. Bide horretatik urrunago, nazionalismo osoa ukatzera joan zitekeen. Batzuek, feli-

peek, egin zuten. Simetrikoki, beste batzuek, Brankakoek, pentsatu zuten handik behin abiaturik, ETA osoa espainolismoan galduko zela. Horregatik ez zuten bide hori onartu. Nazionalismo berriaren hausturarako lehen eszenarioa prest zegoen.

Oro har, eta sozialismoa edo marxismoa ulertzeko desberdintasunak ukatu gabe, progresista gehienak ados ziren nazionalismo zaharrarekin hausteko. Eta, esan bezala, nazionalismo zaharra jorratuz gero, nazionalismo burgesa gainditzeko borondatea gero eta argiago ageri zen.

ETAren inguruko mugimendu osoaren lana izan zen desmitifikazio politiko hori, lehen ikertu dugun subertsio kulturalaren sein bizkia. Baina jatorri nazionalista ez zutenen artean askok mesfidantzaz begiratu zien abertzale berrien entseguei. Komunisten *Arragoa* aldizkariak ere bere burua “desmitifikatzailetzat” zeukan, baina harentzat zaharrak edo berriak, abertzale guztiak burges-txikiak! Mila buelta eman zion arrazaren ordezkari hizkuntza jartzeko ikuspegiari. “Esentzialismo linguistikoaz” eta “solipismoaz” mintzatu zen. Eztabaiden funtsean sartu gabe, esan dezadan PCEk berdin kondenatu zituela aranisten arrazismoa eta ETAzaleen hizkuntzarako grina. Bietan ikusi zuen Euskadiko biztanleen batasuna eta berdintasuna ukatzeko entsegua, entsegu nazionalista; nazionalistek, zioen, zinezko euskaldun bakarrak direla uste dute, eta besteei, bereziki langile etorkinei, ukatzen diete euskalduntasuna.

Arazo honek irtenbide txarra duela bagenekien. Nik behintzat, egun ere ez diot buelta osoa eman. Emigrazioaz lehengo ETAk zeukan ikuspegia biko-

tza zen: aldekoa, etorkinak euskal borrokan eta euskal kulturaren integratzen baziren euskaldun bilakatzen zirelako, besteak bezala, diskriminaziorik gabe; erasokorra, ez integratzekotan desnazionalizazioaren tresna puxanta zirelako eta horren arabera tratamendu politikoa izanen zutelako. Arraza arbuiatzea eta hizkuntza aitzina ematea urrats baikorra zen, lehena betirako emana baita eta bigarrena ikas eta praktikatzeko ahal delako, baina nahi ala ez, honek zatitzen zuen Euskadiko langileria. Ardura horrek izan zuen segida luzea, eta ETA-berriren bereizketan ageri zen. Komunista eta enparauen arabera, Euskadiko biztanle izatea aski zen euskaldun izateko. Diskriminazioaren aurka, eta bereziki pobreen diskriminazioaren aurka egotea guztiz zilegia da; baina euskaradunen berezitasun linguistikoak ezin badaitezke helburu politikoetan integratu, nekez ikusten da zertan den Euskadi nazio berezia: ETAk eta nazionalismo berri erradikal guztiek ez zeukaten zertan existitu behar ere eta alta han ziren, herri batentzat justizia eske.

Ez da harrigarria Txillardegik eta bere lagunak borroka-zaldi honetan igo izana. Marxismoa eta espaniolismoa uztarturik ikusten zituzten. *Arragoa* zen froga aitortua eta ETAren Bulego Politikoan Felipeen presentzia arrisku nagusia. Krutwigek ere 1965eko *La cuestión vasca* liburuan argi erakutsi zuen ez zela fido ETAren Bulegoko marxistez. Txillardegik Krutwigekin kolaborazioarekin sortu zuen *Branka* Belgikan; 1971 arte hamalau zenbaki ateratu zituen aldizkariak. Hasiera-hasieratik gaztigatu zuten zertarako zen: sozialinperialismoa borrokatzeko. Obsezio iraunkorra: marxismoa, apaiztegi-tan ibilitakoen fede dogmatiko berria eta likidazionismoaren atea.

Puntu honetaz egin behar ditut kontsiderazio batzuk. Apaiztegietan ibilitakoei sobera begiratzen zitzairen eta zaie, nire iduriko. Erraza da esatea fede dogmatiko batez hezituek beste dogmatismo bat onetsi behar dutela. Azalpen psikologiko sobera. Rikardo Arregik ere erabili zuen bidelasterra «materialismo dialektikoaren apaiz berrien» setakeria 1968an salatzeke. Esan dezadan, barnetik eta hurbiletik ezagututa, garaiko militante marxisten artean anitz ez ginela inoiz apaiztegietatik pasatu. Bosgarren Biltzar Nagusiaren denboretako liberatu gehienak arrunt laiko eta, gehiago, irreljiosoak ginen. Marxismoaren sarketa erkatu behar da Europako mugimendu iraultzaile berrietan eta Hirugarren Munduko kolonietan gertatu zenarekin. Demokrazia burgesa eta kolonialismoa salatzeke aski bide naturala zen marxismoa, modernitatearen ildotik eta optimismo historikoaren mitoan genbiltzalako. Kritikarako gaitasun eskasa lepora dakiguke, baina ez batere inki-sizioaren senide izatea.

Eszisio espainolista ezkerretik, aber-tzale sozial-humanistak eskuinetik, bi-dea estua zen. Ideologian zorrotzu behar horrek ondorioak izan zituen eta nazionalismo burgesa gainditzeko tirriak bere urte nagusiak izan zituen esz-isioen denboretan. ETaren lehen leher-keta historikoa gertatu zen 1966an. Era-kundeak mila zatiketa izan badu ere, Bosgarren Biltzar Nagusiaren ondokoek finkatu zituzten iraun duen ikuspegi politikoaren oinarriak. Ideologiaz, han datza lehendabizikoen eta gerokoen arteko giltza edo juntadura nagusia.

Urte bizi eta gogor haietako jendeak gogoia zeukan bere nortasunaz eta bere egoeraz argitua izateko. Intelektualek, beren borondatez eta askotan musu truk, bete zuten instituzioek, ira-

kaskuntzak eta komunikabideek hutsik utzitako alorra. Izpiritu emankor eta independente horien jarraitzaileak ditugu Udako Euskal Unibertsitatean ibili den hainbeste eta hainbeste irakasle. Eskola Sozialen garaia aipatzen ari naiz, hain zuzen. Jende anitz ibili zen entzule, eta irakasleen artean Rikardo Arregi bera gogoratu behar da. Bizi-biziak ziren. Autore anitz ikertu edo behintzat aipatu. Hona bildu ditudan izenak: Garaudy, Althusser, Marx, Mao, Lenin, Freud, Morgan, Malinowski, Beauvoir, Teilhard de Chardin, Camus, Sartre, Simone Weil, Malraux... Zerrenda berez mintzo da. Kultura progresista frantsesaren eragina, nabaria; oraindik Frantzia zen nazional-katolizismo espainoletik ihes egiteko bide zuzenena. Idazle marxisten presentzia astuna da, baina hor ziren ere ortodoxiarekin etsaituak zirenak, Camus bezala, edo kristianismo aurrerakoia- ren ordezkariak, Teilhard eta Weil. Kuriositate intelektuala eta munduari irekidura oso argi ikusten dira. Eskola Sozialek berriz ere gezurtatzen dute euskal nazionalismo berriaz batzuek zabaltzen duten itxura baserritar-tremendista, irrazionaltasun arrazista hutsean finkatua.

Eskola horiek harrobia izan ziren ETaren inguruko mugimenduarentzat. Han izandako formakuntza intelektuala izaten zen, usu, militantzian sartzeko lehen urratsa. Nonbait, ETaren tradizioarekin lotu ziren, hasiera-hasieran militante izan aitzineko sei hilabeteko formakuntza gogoratuz. Ez dut esango horretarako eginak izan zirela, ez baita horrela. Alta, mugitzen ziren guztien artean harremanak nabariak ziren.

ETaren belaunaldia, behintzat 1970 inguruan heldutasun ideologikora heldu zena, optimismo historikoaren seinia zen. Frankismoa akabatzeotan

eta munduan gaindi iraultza aitzina, alor zabal eta irekiak zekuskien horizontean. Formulazio politiko eta sozial argiak zituen. Euskadin askatasuna erdiesteko, abertzaleen oldarra izan zen indar nagusia, eta etorkinak pozik integratuko ziren justizia eta askatasuna zekarkien gizarte berrian. Gaur badakigu optimismo sobera zela. Monarkia da frankismoaren ondorengoa eta integrazioaren eztabaidak oraindik gaitu pozointzen, lehen esan dudak bezala.

Bukatzeko, urte haietako protagonista politiko batzuen izenak aipatu nahi ditut. Ikuspegi tremendista eta *paper couché*-ko apologietatik ihesi, jendetasunaren kontradikzioen erdian aurkeztu nahi nituzke.

Han ziren Brankakoak, sozialismo humanista nahi zutenak, espainolismoa marxismo-leninismoarekin identifikatuz, abertzaletasuna oroz gainetik emanaz, hainbeste aldiz eta merezimendu osoaz aipatu dugun Jose Luis Alvarez Enparantza buru; hor baita aktibistak, berrikitan joan zaigun Juan Jose Etxabe bezala, abertzale peto-petoak, borroka nazionalista areagotzeko marxismoa irentsi behar bazen, prest, nahiz eta bigarren mailako gauza bezala kontsideratu; 1963ko errepresioaren ondoan exilioan ibilitako militanteak, Jose Mari Eskubi leitzarra, Xabier Bareño gernikarra, marxismo-leninismoa onartu eta Bulego Politikoaren erreformismoa salatu zutenak; azken hauek barnean ezagutu zituzten Etxebarrieta anaiak: Jose Antonio, Euzko Gazteditik pasata, Yagi-Yagiren tradizioa eta gerla iraultzailea uztartu nahi zituena, eta bere anaia gaztea, Txabi, Sarrikoko fakultatean ikasleen mugimenduan sartua. Haiekin Bilbo aldeko beste gazte batzuk, PCERekin aliantza bultzatu zu-

tenak, marxismoari irekiak eta oinarri nazionalistaren hurbilak. Eta gero nahikoa gazte, ETA mugimendu ez dogmatiko bezala ikusten genuenak, doktrina moderno eta progresistei irekiak, nazionalismo zaharrarekin hautsiz geroz estrategia erradikal, kontemporanea, efikaza, bilatzen genuenak.

Zerk bildu gintuen? Oinarrian abertzaletasun tradizionala: euskaldunak ez gara espainolak eta gure estrategia propioa behar dugu. Etorkizunerako, haustura erradikalaren nahia, nazionalismo zaharra, kultura espainol nazionalista eta katoliko-kontserbadorea, kontsumo-sozietate burgesa, denak batera hastiatzen zituena. Gutariko anitz utopia komunista ere onartzeko prest ginen. Bosgarren Biltzar Nagusian garaile atera zen multzoa gure Euskal Herria bezalakoa zen: gaztea, borrokalaria, nahasia, erradikala, gupidarako leku gutxi eta emaitzarako asko.

Biltzar Nagusiaren bigarren partea 1967an egin zen. Geroko ETArekin oinarri ideologiko iraunkorraren testuak elaborazio nahasi eta mugikorraren irudia ematen du. Nazionalismoaren lehentasuna eta marxismoak dakarren klase-borrokaren protagonismoa uztartzea ez da erraza. Klase-borroka zentroan eman naziotasunaren lehentasuna kolokan ezartzeke eta fronte nazionalistari ateak itxi gabe, oreka nahasia da; langileen batasuna begiratu, euskaldungoan integratzeko emigranteek egin behar duten desmarxta boluntarioa ukatu gabe, pario ausartegia. Gauza sobera zen koherentziaz betetako esaldi doktrinario garbietan sartzeko.

Baina egiteko borondate ikaragarria bazen eta, historiak dituenetako momentu historikoren batek ekarria, borondate hori uztartu zen altxamendu

herritar eskergarekin. Burgosko auzia, frankismoaren agonia, askatasunaren nahia asetzeko esperantza bizia, hori guzti hori piztu zen justu 1973ko Uda-ko Unibertsitatearen atean. Horren ondorioz gaude gu hemen Iruñean, 1997ko uztailaren 14an.

Unibertsitatea herriaren zerbitzu- rako: ametsaren moko zorrotza

Alta, hain finko zirudien oinarri doktrinal marxista-leninista kolokan zegoen dagoeneko 1973an. 1968ko mugimendua bikoitza izan zen, kapitalismo ankilosatua eta iraultzarako ikusmolde gogortuak berdin kritikatu zituelako. Batez ere, denetarako erantzuna zeukan militantzia tradizionalaren hil-ezkila jo zuen.

1968ko denboretan hain hartuta ginen bor-bor zegoen sozietatean, hain lotuta frankismoaren erorketa seguruak irekitzen zituen itxaropen subertsiboei, non beldur naizen ez ginela batere konturatu gertatzen ari zenaz. Pariseko gertakariak eragin txikia izan zuten Hegoaldean; leninismoaren erorketaz, eredu iraultzaileen krisiaz, militantismoaren zaharkitzeaz, berantarekin ohartu ginen. Neure buruari galdetzen diot batzuek ohartu direnentz gaur egun ere. Ez nuke honekin gobernatzen gaituen sistema onetsi nahi, baina ezagutza objektiboak lagundu behar gaitu ikusteko non gauden, ulertzeko zergatik ordenazko demokratek gobernatzen gaituzten, barnatzeko autoritarismoak kutsatu eredu iraultzaileek legitimitate osoa galdu dutela eta apalki aitortzeko modelo libertarioek ez dutela oraino aurkitu efikaziarako bidea.

Finean, sozietatea astuna eta nahasia da. Diktadurak beste adierazmolde

guztiak ukatzen zituenean, kalean eta alor publikoetan haustura zaleak baizik ez ziren ikusten. Diktaduraren azken urteotan, gaur aipatu dudan denboran, lan-harreman normalizatuak, bozketa demokratikoak eta kultur adierazpenak ukatuak ziren eta errepresioak huts egin zuen jendea kikiltzeko; ibiltzen ziren militanteek asmatu zituzten espresamolde errupturistak eta jende interesatuak, oro har, onartu zituen irtenbide erradikalak. Krisi-momentuetan herri osoa iraultzaileekin dagoe-la ematen du.

Eta ez. Adierazmolde normalen agerpena, diktadura bukatzeko aldakuntza erradikalen eza, komunismoaren erorketaren ondoko nazioarteko egoera, gertatu dira. Isilean ari ziren ordenazko demokratek hartu dute Mendebaldeko sozietateetan duten leku normala. Intelektual eta tekniko euskaldun “baketsuak” lanean eta unibertsitateetan trebatu ziren eta kontsiderazio sozialean igo; goi-mailako klase ertain horrek osatu zuen EAJren oinarri berria, modernoa, demokraziarako egokia. Oligarkiaren porrot ekonomiko-sozialak utzi zuen Euskal Herria nagusi politiko “naturalik” gabe eta gabezia honetaz baliatu ziren klase moderno nazionalistak. Aferetan eta politikan Europako beren kideak bezala dira eta Mendebaldeko demokrazia errepresentatiboaren bidez gobernatzen dute desberdintasun sozial eta ekonomikoz beteriko sozietatea.

Ideien domeinuan, antzekoak dira aldakuntzak. Etika iraultzailearen lekuan ezarri digute moral merke eta zinikoa, sentimendu onen eta herri-senaren nahaste nazkagarria, inongo goitasun filosofikorik gabe, ekintzarako konpromezu politikoan ukatzailea. Ikusmolde honekin oso ongi konpon-

tzen dira hirurogeita zortziko gazte zahartuak, non beraiek ez baitira sortzaile eta hedatzaile: askatasun indibidualaren gorapatzeak hondatu dizkigu doktrina politiko orohartzaileak, baina oso ongi akomeatu da publizitatea, konsumismoa eta azken finean garaileen kapitalismoarekin.

Alta, konpromezua eta subertsioa onesten dituztenen artean ere anitz heldu da heldutasun sozial eta profesionalera. Diktadurak ez bezala, demokrazia errepresentatiboak eskaintzen ditu sozietatea kudeatzeko posibilitate instituzional irekiak, ez beti eta nonahi, baina errealak. 1973 baino lehenagoko izpirituak ez gintuen horretarako antolatu, instituzionaltasun osoaz mesfidatzen baikin sistematikoki. Gaur egunean subertsiorako prest denari beste desafio berri bat aurkezten zaio: aginte eta gobernu lekuetatik ere askatasunaren eta berdintasunaren alde jarraitzea. Gauza biologikoa izanen da, behar bada, baina nagoen lekutik idealismo espirituala errealismo lurtarrarekin nahasia eta ernetua ikusi nahi nuke. Udako Euskal Unibertsitateak atxiki du euskal kultura unibertsitarioa eraikitzeke xedea, eta on da ikertzaile eta profesionalen beharrak kontuan hartzea, egoki da erakunde publiko eta pribatuekin nahastea, euskal komunitate zientifiko-intelektuala bildu eta trebatzeko gaitasun materiala eta prestigio intelektuala landu behar direlako.

Baina, unibertsitate herrikoia eta errupturista izan daiteke errealismo horrekin batera? Ez dakit nola lot arazoari. 1973an oraindik zutik zirauten unibertsitateari buruz ikusmolde kritiko ezkertiarrek. Unibertsitatea, esaten genuen, ez da soilki ezagutzak eta

horien araberrako diplomak banatzeko instituzio independentea; unibertsitateak, bereziki, ordena dominantearen kode intelektuala normaltzen du, kode hori aurkezten digu egia bakarra balitz bezala, eta gobernatzen duten eliteen erreproduzioa segurtatzen du. Molde honen aurka altxatu ziren Estatu Batuetan, Alemanian, Frantzian, hots, gure erreferentzia ziren inguruetak erresumetan; han bezala hemen ere asmatu zen beste ibilmolde bat, unibertsitate herrikoia eta partizipatiboa egiteko. Unibertsitate ofizialek baztertzen zituzten gaiak ikertzea, ikasle eta irakasleen arteko harreman hierarkikoak haustea, *cursus* akademiko osoa ez dutenei ikaslegoa eta irakaslegoa zabaltzea, hori guzti hori bereganatu zuen gure lehen Udako Unibertsitateak. Helburu subertsiboa beraz, barnean gihartua. Derradan, egia delako, hasiera-hasieratik ere parte hartu zutela ordenazko pentsamendua onesten duten euskaltzale nahikoak eta, beraz, egoera nahasia izan zela beti Udako Euskal Unibertsitatearena, hitzaldian aipatu dudana euskalgintza guztian bezala. Baina, ziur nago hogeita bost urte hauetan beti fidel eta beti langile ibili direnen artean anitz badela lehengo lepokoak, pentsatuz unibertsitateak herriaren zerbitzurako bideratu behar duela pentsamendu kritikoa, pentsatuz aitzineko kritikak atzo bezain pertinentesak direla eta, denbora berean, aski errealista eta umilak kontsideratzeko apustuak merezi duela eskas zaigun egia biribil dogmatikorik gabe ere. Egungo egoerari iraultzak ezinezkoa badirudi ere, ezinbestekoa da, atzo bezala.

Biba zuek, lagun militanteak, eta zuei, entzule pazienteei, mila esker.